

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroa Europako Lankidetzaren Eguna ospatzen ari da kaleko artearen jarduerekin

*2 metro luzeko eta 1 metro zabaleko domino-fitxen ilara bat jarriko da Iruñeko Gazteluko plazan, eta fitxa horiek artista nafarrek eta POCTEFA programak finantzatutako erakundeetako ordezkariak pintatuko dituzte*

Miércoles, 19 de septiembre de 2012

Pirinioetako Lan Elkartek (PLE) gaur goizean Iruñean parte hartu du datorren irailaren 21ean egingo den Europako Lankidetzaren Eguna ospakizunean, irailaren 19tik 21 era Iruñeko Gazteluko plazan egingo den kaleko artearen jarduerarekin.

Ekimen horretan domino erraldoi bat jarri da, 2 metroko altuerako eta metro bateko zabalerako 24 fitxekin, eta artista nafarrek eta POCTEFA programak (Mugaz Haraindiko Lurraldearen Zerbitzura dagoen Europako Programa) finantzatutako erakundeetako ordezkariak beraientzat Europako lankidetzaren zer den adierazi ahalko dute eta Europar Batasunak edizio honetarako hautatutako lehen inguruan ere beren iritzia emango dute: "Compartiendo fronteras, creciendo juntos" ("Mugak partekatuz, elkarrezkin hazten").

Nafarroako Gobernuak egun PLEaren lehendakaritza duenez, bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinek ekimen hori bisitatu du, Erakunde Harremanetako zuzendari nagusi Fátima Baigorriekin batera.

Jendeak prozesu hori ikus dezake gaur, asteazkena, 11.00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara eta ostegunean 17:00etatik 21:00etara. Ostiralean fitxak 09:00etatik 12:00etara izango dira ikusgai.

Jarduerari amaiera emateko, aurreikusita dago datorren ostiralean PLEko hiru herrialdeetako ordezkariak fitxei bultzada eman diezaietela, aurreko egunetan Gazteluko plazan sortzen joan direnak eta mugen desagertzea sinbolizatzen duen domino-efektua sortaraziz.

Estreinakoz egiten den ospakizun hori dela eta, tokiko 200 ekintzatik gora antolatu dira Europa guztian irailaren 17tik 23ra, era askotako ekintzekin: mugaz haraindiko lasterketak, haur-antzerkiak, naturan egindako



Sánchez de Muniáin lehendakariordea eta Fátima Baigorri, PLEaren stand-era egindako bisitan.

eskaladak eta argazki-lehiaketak, besteak beste.

Europako Batzordearekin elkarlanean eta Eskualdeen Batzordearen nahiz Europako Parlamentuaren laguntzarekin INTERACT programak koordinatutako kanpaina horren helburua da, kontinenteko herrialde eta eskualdeen arteko lankidetzaren lorpenak ospatzea. Iragan mendeko 90ko hamarkadaren hasieratik, Europar Batasunak kofinantzatutako 20.000 proiektu baino gehiagok bertako hiritarren bizimodua hobetzen lagundu dute honako era honetan: lanpostuak sortuz, ingurumena babestuz, osasun-zerbitzuak hobetuz, garraioaren edo energiaren zerbitzuak hobetuz

Gaur egun, Europako Lurralde Lankidetzako 77 programa abian daude. Nafarroak 39 proiektutan parte hartzen du, eta haietatik 22tan da buru. POCTEFAREN bitartez, Foru Komunitateak ia 18,5 milioi euro (18 494 000 €) jasotzen ditu FEDERen eskutik ondorengo proiektuekin: prestakuntzako lurralde-lankidetzakoak, ikerketakoak, garapen ekonomikokoak, turismo-garapenekoak, natur eta kultur ondarearen babes eta baloraziokoak, ingurumena babestekoak...

### **Kaleko artea**

Aurreratu denez, Europako Lankidetzaren Egunaren ospakizuna dela eta antolatutako kaleko artearen jarduera Iruñeko Gazteluko plazan domino erraldoi bat jartzean datza, 2 metroko altuerako eta metro bateko zabalerako 24 piezekin, eta formatu handiko azalera gisa balioko dute hainbat herritar-taldek beren sormen-adierazpena azalera dezaten.

Hala, gaur asteazkena, irailak 19, 11:00etatik 13:30era, Nafarroan POCTEFAK finantzaturako proiektuen ordezkari batzuk nahi dituzten iritziak jarriko dituzte taulen gainean, honako hauek, esaterako: ENECO2 (eko-ekonomiaren sustatzailea eta ETEetan mugaz haraindiko dinamika baten sustatzailea), GURATRANS (Pirinioetako mendebaldean mugaz haraindiko ibaietan plan hidrológicoak bultzatzen ditu), TESS (ekonomia sozial eta solidarioren mugaz haraindiko sarea sustatzen du), Zirkuaren Pirinioak (espazio horretako zirku-sektorea pizteko), FORTIUS (Pirinioetako mendebaldeko turismo erakargarria areagotzeko Iruñea eta Baionako ondare gotortua balioan jarriz) eta YELMO (Eugi eta Bancako industria-ondarea balioan jartzeko, turismo-ibilbide bat sortuz).

Gaur arratsaldean, pintura-tailerra POCTEFAREN Lazos-Liens-Loturak programaren barnean dagoen gazte-taldearen esku geratuko da (proiektu horren xedea da, batetik, gizarte-zailtasunak dituzten gazteentzako metodologia sozial eta hezitzaileak hobetzea, eta bestetik, mugaz haraindiko harremanetan sakontzea tresnak eta espazioak partekatzeko eta erantzun bateratuak sortzeko), nahiz eta zenbait artista nafarrek, Arte Gaztearen Topaketen azken edizioan saritutakoak eta graffiti-egileen talde batek esaterako, mugen arteko lankidetzaren beren ikuspegi partikularra islatuko duten.



Sánchez de Muniáin lehendakariordea Nafarroan POCTEFAREN programak finantzaturako erakundeetako ordezkarien alboan.